

## Bestelako Xedapenak

### JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2601

AGINDUA, 2011ko apirilaren 14koa, Justizia eta Herri Administrazioaren sailburuarena, giza eskubideen «Rene Cassin» saria deitzen eta arautzen duena.

Deialdi honen bidez publikoki goraipatu eta saritu nahi dira ibilbide pertsonal nahiz profesionalarekin giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza ematen duten pertsonak eta taldeak.

Sariaren izena 1887ko urriaren 5ean Baionan jaio zen Rene Cassin jaunaren oroimenez ezarri da. I. Mundu Gerrako zorigaitzoko esperientziak eragin nabarmena izan zuen berarengan eta borrokan ibilitakoen eta gerrako biktimen defendatzaile porrokatu bihurtu zen. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren inspiratzaile nagusia izan zen 1948an, eta 1950eko Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean funtsezko zeregina izan zuen. 1968an Bakearen Nobel saria eman zioten giza eskubideen alde atsedetik hartu gabe buru-belarri ibili zelako; sari hori Giza Eskubideen Estrasburgoko Nazioarteko Institutua sortzeko baliatu zuen.

Hori guztia dela-eta, Justizia eta Herri Administrazio Sailari dagozkion eskumenen barruan, 2011. urte honetako «Rene Cassin» saria deitu eta arautu da.

Horiek horrela, hauxe

EBATZI DUT:

#### **1. artikulua.**– Helburua.

Agindu honen helburua 2011ko «Rene Cassin» saria deitu eta arautzea da. Giza eskubideen alorrean irabazi-asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek, publiko zein pribatuek, egin duten lana jendaurrean aitortzea eta nabarmentzea da sariaren xedea.

#### **2. artikulua.**– Sariaren ezaugarriak.

Epaimahaiaren iritziz saria lortzeko nahiko mehezimendu erakutsi duen pertsonari edo pertsonari emango zaie deialdi honetako saria. Saria ohorezko aipamenak, aintzatespen publikoak eta 16.550 euroko diru-zenbatekoak osatuko dute.

#### **3. artikulua.**– Onuradunak.

Agindu honen bidez iragarritako saria honakoek jaso dezakete: beraien jarduera eta ibilbidearekin gure

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2601

ORDEN de 14 de abril de 2011, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se convoca y regula, el Premio «Rene Cassin», de Derechos Humanos.

La finalidad de la presente convocatoria es reconocer públicamente y premiar a aquellas personas o colectivos que con su trayectoria personal o profesional dan testimonio de su compromiso en la promoción, defensa y divulgación de los Derechos Humanos.

La denominación del premio se realiza en recuerdo de D. René Cassin, nacido en Bayona el 5 de octubre de 1887. La trágica experiencia de la I Guerra Mundial le marcó profundamente, convirtiéndose en un resuelto defensor de los antiguos combatientes y las víctimas de la guerra. Fue el principal inspirador de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en 1948 y jugó un papel esencial en la elaboración del Convenio Europeo de Derechos Humanos de 1950. Galardonado con el Premio Nobel de la Paz en 1968 por su combate infatigable a favor de los Derechos Humanos, consagró el Premio a la creación del Instituto Internacional de Derechos Humanos de Estrasburgo.

Por todo ello, en el marco de las competencias que le corresponden al Departamento de Justicia y Administración Pública, se procede a convocar y regular, para este año 2011, el premio «Rene Cassin».

En su virtud,

RESUELVO:

#### **Artículo 1.**– Objeto.

El objeto de la presente Orden es convocar y regular la concesión del Premio «Rene Cassin» para 2011, cuya finalidad es destacar y reconocer públicamente la actuación en el ámbito de los Derechos Humanos, de aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin ánimo de lucro.

#### **Artículo 2.**– Características del Premio.

El Premio de la presente convocatoria se concederá, a criterio del Jurado, a la persona o personas que acrediten méritos suficientes para ello. El Premio consistirá en una distinción honorífica, en un reconocimiento público, y en una cantidad dineraria de 16.550 euros.

#### **Artículo 3.**– Personas Beneficiarias.

Podrán optar al Premio convocado por la presente Orden, aquellas personas físicas o jurídicas, públicas

gizartean giza eskubideen balioak sustatzen lagundu dutelako edo laguntzen dutelako nabarmentzen diren irabazi-asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuek.

**4. artikulua.**– Hautagaiak aurkeztea.

1.– Edozein pertsona fisiko nahiz juridikok, publikok nahiz pribatuk, aurkez ditzake saria lortzeko hautagaiak.

2.– Sarirako hautagai bakoitzaren izenarekin batera, honako hauek bidali beharko dira:

a) Sarirako proposatutako hautagaiak giza eskubideei egindako ekarpena egiaztatzen duen dokumentazioa.

b) Hautagai izateko proposatua izan den pertsonak sariketa honetan parte hartzeko adostasuna ematen duela esanez egindako adierazpena.

c) Proposatutako hautagaiaren edo hautagaien aldeko abal edo atxikimenduak, hautagaiak aurkezten dituztenek halakorik aurkeztu nahi izanez gero.

3.– Hautagai-proposamenak, aurreko paragrafoan ezarritako agiriekin batera, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzara bidali behar dira (Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz), agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan.

4.– Epaimahaiak ofizioaz sartu ahal izango ditu aurreko edizioetan aurkeztu eta saritu ez ziren hautagaiak, balioetsi daitezten eta, egoki bada, saria lortzeko proposa daitezten.

**5. artikulua.**– Sariaren kudeaketa.

Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzak egingo ditu deialdi honi dagozkion kudeaketa-lanak. Sariaren diru-zenbatekoa ordainketa bakarrean emango da.

**6. artikulua.**– Epaimahaia.

1.– Saria zein hautagaik merezi duen erabakitzeko, kalifikaziorako epaimahaia eratuko da, eta bertan, giza eskubideekin zerikusia duten ospe handiko pertsona ezagunek hartuko dute parte.

2.– Epaimahaia honela osatuta egongo da:

Epaimahaiburua: Justizia eta Herri Administrazio Saileko sailburua.

Epaimahaikidea: Justizia eta Herri Administrazio Saileko Justiziako sailburuordea.

o privadas sin ánimo de lucro, que, con su actuación y trayectoria, contribuyeren o hubieren contribuido de manera destacada a la promoción de los valores de los Derechos Humanos en nuestra sociedad.

**Artículo 4.**– Presentación de candidaturas.

1.– Las candidaturas al Premio podrán ser presentadas por cualquier persona física o jurídica, tanto pública como privada.

2.– Junto con cada una de las candidaturas al Premio habrá de remitirse:

a) La documentación pertinente que acredite la contribución a los Derechos Humanos de la persona candidata propuesta al Premio.

b) La declaración de la persona propuesta como candidata expresando su conformidad con la participación en este Premio.

c) En su caso, los avales o adhesiones que, a favor de la persona o personas propuestas, presenten quienes formalicen las candidaturas.

3.– Las candidaturas, junto con la documentación establecida en el apartado anterior, deberán dirigirse por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en el plazo de dos meses, contado a partir del día siguiente al de publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, a la Dirección de Derechos Humanos del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

4.– El Jurado, de oficio, podrá incorporar las candidaturas presentadas y no premiadas en las anteriores ediciones para que pudieren ser valoradas y, en su caso, propuestas para la obtención del Premio.

**Artículo 5.**– Gestión del Premio.

Corresponderá a la Dirección de Derechos Humanos del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco la realización de las tareas de gestión que conlleva la presente convocatoria. La cantidad dineraria del Premio se abonará en un único pago.

**Artículo 6.**– Jurado.

1.– La evaluación de las candidaturas presentadas se llevará a cabo por un Jurado compuesto por destacadas personalidades de reconocido prestigio vinculadas con los Derechos Humanos que fallará la candidatura a la que se le otorgue el Premio.

2.– La composición del Jurado será la siguiente:

Presidenta: La Consejera de Justicia y Administración Pública.

Vocal: La Viceconsejera de Justicia del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Epaimahaikidea: Joseba Arregi Aranburu jauna, Teologia eta Soziologiako doktorea, Soziologiako irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean.

Epaimahaikidea: M.<sup>a</sup> Concepción Escobar Hernández andrea, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko eta Nazioarteko Harremanetako katedraduna.

Epaimahaikidea: Silvia Escobar Moreno andrea, Giza Eskubideetarako Misio Bereziko enbaxadorea Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioan.

Epaimahaikidea: Edmundo Rodríguez Achútegui jauna, Arabako Probintzia Auzitegiko magistratua.

Epaimahaikidea: Xabier Etxeberria Mauleón jauna, Etikako katedraduna Deustuko Unibertsitatean.

Epaimahaikidea: José Angel Cuerda Montoya jauna, Zuzenbidean lizentziatua, Gasteizko alkate ohia eta bake- eta giza eskubide-gaietako hainbat erakundetako kidea.

Epaimahaikidea: Maria Oyanguren Andrea, Gernika Gogoratuz elkarte zuzendaria.

Epaimahaikidea: Gorka Landaburu Illarramendi jauna, kazetaria.

3.– Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Eskubideen zuzendaria izango da epaimahaiko idazkaria. Hitz egiteko eskubidea izango du, baina botoa emateko eskubiderik ez.

4.– Erabakiak, emandako botoen gehiengo soilaz hartuko dira eta, berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuak hartu ahal izango du erabakia. Hartzen diren erabakien eta jarduera guztien akta egingo du idazkariak. Akta horretan sariaren epaitza oinarritzen duen irizpen arrazoitua ere jaso beharko da.

5.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 28. eta 29. artikuluetan adierazitako kasuren bat gertatuko balitz, epaimahaikideek ezingo dute epaimahaian parte hartu eta interesdunek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte.

#### 7. artikulua.– Esleitzeko irizpideak.

Sariduna proposatzeko, epaimahaia irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Proposatutako pertsonak edo pertsonak giza eskubideen alorreko jardueretan luzaroan parte hartu izana.

b) Giza eskubideen balioak garatzeko egindako lanaren berezko garrantzia.

c) Proposatutako pertsonak edo pertsonak egindako jarduerak edo ibilbideak euskal gizartean eta nazioartean daukan oihartzuna eta eragina.

#### 8. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdi honetan jasotako irizpideei kasu eginez epaimahaiaren uste eta jakinduria leialaren arabera

Vocal: D. Joseba Arregi Aranburu, Doctor en Teología y Sociología, profesor de Sociología en la Universidad del País Vasco.

Vocal: D.<sup>a</sup> M.<sup>a</sup> Concepción Escobar Hernández, Catedrática de Derecho Internacional Público y Relaciones Internacionales.

Vocal: D.<sup>a</sup> Silvia Escobar Moreno, Embajadora en Misión Especial para los Derechos Humanos en el Ministerio de Asuntos Exteriores y Cooperación.

Vocal: D. Edmundo Rodríguez Achútegui, Magistrado de la Audiencia Provincial de Álava.

Vocal: D. Xabier Etxeberria Mauleón, Catedrático de Ética en la Universidad de Deusto.

Vocal: D. José Ángel Cuerda Montoya, Licenciado en Derecho, ex-Alcalde de Vitoria-Gasteiz, miembro de diferentes organizaciones en temas de Paz y Derechos Humanos.

Vocal: D.<sup>a</sup> Maria Oyanguren, Directora de la Asociación Gernika Gogoratuz.

Vocal: D. Gorka Landaburu Illarramendi, Periodista.

3.– Ejercerá como Secretaria del Jurado, con voz pero sin voto, la Directora de Derechos Humanos del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco.

4.– Los acuerdos serán adoptados por mayoría simple de votos emitidos, pudiendo dirimir la Presidencia los empates que se puedan producir. La Secretaria levantará Acta de cuantas actuaciones y acuerdos se adopten, debiendo figurar el dictamen razonado que fundamente el Fallo del Premio.

5.– Los miembros del jurado deberán abstenerse o podrán ser recusados por los interesados o interesadas si se dieran alguna de las causas previstas en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

#### Artículo 7.– Criterios de adjudicación.

Al objeto de formular su propuesta de concesión, el Jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios:

a) Implicación prolongada de la persona o personas propuestas en el ámbito de los Derechos Humanos en el que desarrollare o hubiere desarrollado su actividad.

b) Relevancia intrínseca de la actuación realizada en el desarrollo de los valores de los Derechos Humanos.

c) Repercusión e influencia, tanto en la sociedad vasca como en la esfera internacional, de la actuación o trayectoria desarrollada por la persona o personas propuestas.

#### Artículo 8.– Resolución.

1.– El fallo del Jurado expresará las razones que justifican, según su leal saber y entender, el acuerdo

hartutako erabakia justifikatzen duten arrazoiak adieraziko ditu epaimahaiaren epaitzak eta, horrez gain, saritutako pertsonaren edo pertsonen ibilbidearen esanahiaz egiten duen balorazioa ere azalduko du.

Epaimahaiak, salbuespenez, justifikatutako arrazoiak eta interes sozial eta humanitarioak tarteko direla, saria beste pertsona edo erakunde batzuei ematea proposatu dezake, betiere hautagairik aurkeztu ez bada edo aurkeztu direnek ez baldin badituzte saria eskuratzeko gutxienezko baldintzak betetzen.

2.– Epaimahaiak, halaber, proposatutako pertsonak edo pertsonen saria jasotzea merezi ez dutela pentsatzen badu, saria eman gabe uztea proposatu dezake.

3.– Epaimahaiak saria emateko edo hutsik uzteko epaitza eman ondoren, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuak «Rene Cassin» saria esleitzeko Agindua emango du. Bertan, agindua bera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila, jende guztiak ezagutu dezan, eta interesdun guztiei jakinarazi dakielako aginduko du.

#### **9. artikulua.**– Aintzatespen publikoa.

Aintzatespen publikoko ekitaldia Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuak iragarriko du. Ekitaldi publiko bat egingo da saria emateko.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Deialdi honetan berariaz aurreikusi gabeko kontuetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean agindutakoa aplikatuko da.

**Bigarrena.**– Agindu honek administrazio-bidea bukatzen du. Aurka egiteko, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri diezaiokete Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuari, hilabete epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabete epean. Bi kasuetan, errekurtsoak jartzeko epeak agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

**Hirugarrena.**– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 14a.

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.

adoptado en relación con los criterios de adjudicación contenidos en esta convocatoria, así como la valoración que le merece el significado y trayectoria de la persona o personas premiadas.

El jurado puede proponer, excepcionalmente, por razones justificadas y de interés social y humanitario, y siempre que no se haya presentado ninguna candidatura o que las presentadas no reúnan los requisitos mínimos para poder acceder al Premio, la concesión del mismo a otras personas o entidades.

2.– El Jurado podrá proponer, asimismo, que el Premio se declare desierto cuando, a su juicio, la persona o personas propuestas no resulten merecedoras del mismo.

3.– Después de que el Jurado emita su fallo concediendo el Premio o declarándolo desierto, la Consejera de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco dictará la correspondiente Orden de adjudicación del premio «René Cassin» ordenando que se publique en el Boletín Oficial del País Vasco para general conocimiento y que se notifique a todas las personas interesadas.

#### **Artículo 9.**– Reconocimiento público.

El acto de reconocimiento público será convocado al efecto por la Consejera de Justicia y Administración Pública, y consistirá en un acto público de concesión del Premio.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– En todo lo no previsto expresamente en la presente convocatoria, será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Segunda.**– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses. En ambos casos, los plazos de interposición se contarán a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Tercera.**– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 2011.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,  
IDOIA MENDIA CUEVA.